


2025-2026

28

OTSAILA | FEBRERO

19:00
MUSIKENE

MSKN MASTER ENSEMBLE
KONTZERTUA | CONCIERTO



musikene

PROGRAMA

UN VIAJE DE INVIERNO

HANS ZENDER - Schuberts Winterreise [1993]



- I. Gute Nacht / Buenas noches / Gabon
- II. Die Wetterfahne / La veleta / Haize-orratza
- III. Gefrorne Tränen / Lágrimas heladas / Malco izoztuak
- IV. Erstarrung / Entumecimiento / Hozmintze
- V. Der Lindenbaum / El tilo / Ezkia
- VI. Wasserflut / Torrente / Uholde
- VII. Auf dem Flusse / En el río / Ibaian
- VIII. Rückblick / Mirada hacia atrás / Atzera begirada
- IX. Irrlicht / Fuego fatuo / Arima-argiak
- X. Rast / Descanso / Atsedn
- XI. Frühlingstraum / Sueño primaveral / Udaberri-ametsa
- XII. Einsamkeit / Soledad / Bakardade
- XIII. Die Post / El correo / Posta
- XIV. Der greise Kopf / La cabeza cana / Buru ileurdina
- XV. Die Krähe / El cuervo / Belea
- XVI. Letzte Hoffnung / Última esperanza / Azken itxaropena
- XVII. Im Dorfe / En el pueblo / Herrian
- XVIII. Der stürmische Morgen / La mañana de tormenta / Goiz ekaiztsua
- XIX. Täuschung / Ilusión / Irudipena
- XX. Der Wegweiser / El mojón / Mugarria
- XXI. Das Wirthaus / La posada / Ostatua
- XXII. Mut / Coraje / Kemen
- XXIII. Die Nebensonnen / Los parhelios / Parhelioak
- XXIV. Der Leiermann / El zanfonista / Zarrabetejolea

JOSÉ LUIS ESTELLÉS

zuzendaria / director

AITOR GARITANO

tenorra / tenor

MSKN MASTER ENSEMBLE

FLAUTAK: María Isabel Orrego, Ana Cubero
OBOEAK: Jorge Pablo Fuentes, Bixen Gómez
KLARINETEAK: Manuel López, Joaquín Vera
FAGOTAK: Martín Olmedo, Antón Fernández
SAXOFOIAK: Alejandro Javier Galindo
TRONPA: Blanca Prieto
TRONPETA: Alberto Caamaño
TRONBOIA: Malva-Xiang Gómez
PERKUSIOAK: Alejandro Carrascoso, Pablo Sanz, Daniel Hernández, Diego Rincón
GITARRA: Cecilia Moreno
HARPA: Fabrizio Zanabria
AKORDEOIA: Jéssica Duarte
BIOLINAK: Javier Ronco, Julián Caballero
BIOLAK: Ágata García, Adela Casas
BIOLONTXELOA: Henrique Dias
KONTRABAXUA: Emma Folcher



JOSÉ LUIS ESTELLÉS, zuzendaria

JOSÉ LUIS ESTELLÉSek jarduera artistiko zabala garatzen du, orkestra-zuzendari, klarinete jotzaile eta irakasle gisa.

José Luis Estellés bakarlari gonbidatu gisa, hogeita hamar orkestra eta ensemble baino gehiagorekin batera aritu da, eta baita ganbera-musikari gisa AEBetako, Mexikoko, Japoniako eta Europa osoko areto eta jaialdi garrantzitsuetan ere, laukote eta bakarlari ospetsuekin batera. Manon Taldea eta TAI MAGranada bezalako ensembleen sortzailea izan zen. Klarinete jotzaile gisa CDan egindako grabazioak Turtle Records, Emergo Classics, Sarriá, Anacrusi, Verso, Kairos, Naxos, Komponisten Polyphonie eta Ibs Classical zigiluetan argitaratu dira, eta sari ugari lortu ditu aldizkari espezializatuetan.

Orkestra zuzendari gisa Espainia, Alemania, Belgika, Frantzia, Ingalaterra, Bulgaria eta Mexikoko kontzertu askotan aritu da eta Musikene, Verso eta Ibs Classical zigiluetarako grabatu du.

Orkestra-musikari gisa, Orquesta Ciudad de Granada-ko klarinete bakarlaria izan da 1991tik, eta Espainiako, Ingalaterra, Belgika eta Alemaniako beste talde batzuekin ere kolaboratu du.

José Luis Estellés klarinete irakaslea da Musikenen 2001ean sortu zenetik, eta bertako Zuzendari Artistikoa eta Orkestra Ikasketen zuzendaria ere izan da. 2021az geroztik ganbera-musikako katedraduna da Koloniako (Alemania) HfMTn. Irakasle gisa Sibelius Academy, Codarts – Rotterdam Conservatorium, Alcalá de Henareseko Unibertsitatea eta Oviedoko Goi Mailako Musika Kontserbatorioari lotuta egon da eta mundu osoan zehar eman ditu eskola magistralak. ARD (Munich) eta Aeolus (Dusseldorf) nazioarteko lehiaketa garrantzitsuetan gonbidatua izaten da epaimahaikide gisa.

JOSÉ LUIS ESTELLÉS desarrolla una extensa actividad artística en la que aúna las facetas de director orquestal, clarinetista y profesor.

José Luis Estellés ha actuado como solista invitado junto a más de treinta orquestas y ensembles, y también como músico de cámara en importantes salas y festivales de EE.UU., México, Japón y en toda Europa junto a prestigiosos cuartetos y solistas. Fue fundador de ensembles como el Grupo Manon y TAI MAGranada. Sus grabaciones en CD como clarinetista se han publicado en los sellos Turtle Records, Emergo Classics, Audiovisuals de Sarriá, Anacrusi, Verso, Kairos, Naxos, Komponisten Polyphonie e Ibs Classical, obteniendo numerosos galardones en las revistas especializadas.

Como director de orquesta ha actuado en numerosos conciertos en España, Alemania, Bélgica, Francia, Inglaterra, Bulgaria y México y ha grabado para los sellos Musikene, Verso y Ibs Classical.

Como músico orquestal, ha sido solista de clarinete de la Orquesta Ciudad de Granada desde 1991 y ha colaborado también con otras formaciones españolas, de Inglaterra, Bélgica y Alemania.

José Luis Estellés es Profesor de clarinete en Musikene desde su creación en 2001, donde también fue su Director Artístico y Director de Estudios Orquestales. Desde 2021 es catedrático de música de cámara en la HfMT de Colonia (Alemania). Ha estado vinculado como profesor a la Sibelius Academy, a Codarts – Rotterdam Conservatorium, a la Universidad de Alcalá de Henares y al Conservatorio Superior de Música de Oviedo y ha impartido clases magistrales por todo el mundo. Es invitado como jurado en importantes concursos internacionales, como la ARD (Munich) y Aeolus (Dusseldorf).

MSKN MASTER ENSEMBLE

MSKN Master Ensembleak, Musikeneko Interpretazio Masterreko ikasleak osatua, maila profesionaleko prestakuntza eta esperientzia jasotzen dute talde musikaren praktikan, programatutako obren eta interpretazio publikoaren bidez.

Geometria aldakorreko talde moldakor bat da, bere programetan formatu txikiko ensemble batetik orkestra sinfoniko bateraino eralda daitekeena. Ezaugarri horren eta bere programazioaren kontzeptu eklektikoaren ondorioz, ensembleak José Luis Estellésen zuzendaritzapean, 2020ko urriaren 5ean lehen kontzertua eman zuenetik, hurrengo konpositore hauek jorratu ditu: Thomas Adès, Béla Bartók, Alban Berg, Friedrich Cerha, Ernest Chausson, Frédéric Chopin, Aaron Copland, Luigi Dallapiccola, Claude Debussy, Alvin Etler, George Gershwin, Sofia Gubaidulina, Paul Hindemith, Ramón Lazkano, Gustav Mahler, Darius Milhaud, Wolfgang A. Mozart, Conlon Nancarrow, David del Puerto, Maurice Ravel, Wolfgang Rihm, Miklós Rózsa, José María Sánchez Verdú, Dmitri Shostakovich, Franz Schreker, Erwin Schulhoff, Igor Stravinsky, Edgar Varese, Heitor Villa-lobos, Kurt Weill y Hans Zender, baita Mikel Iturregi, Pedro González Álvarez eta Leonel Aldinoren konpositoreen estreinaldiak ere.

Halaber, Marta Zabaleta, Miguel Ituarte eta José Luis Estellés irakasleek solista gisa parte hartu dute eta, aipatzekoa da ere, Myriam Pérez Cazabón koreografoarekin FICOBako Arkitekturaren Munduko Egunaren kontzertu-ospakizunean izandako lankidetzeta eta Nafarroako Unibertsitateko Museoko kontzertuan eta Bilboko Musika-Musica jaialdiko 2024ko edizioan izandako parte-hartzea.

MSKN Master Ensemble es la agrupación en la que el alumnado del Máster de Interpretación de Musikene recibe una formación y experiencia de nivel profesional en la práctica de la música de conjunto a través del trabajo y la interpretación pública de las obras programadas.

Agrupación versátil, de geometría variable, en sus programas puede transformarse desde un ensemble de pequeño formato hasta una orquesta sinfónica. Como consecuencia de esta característica y del concepto ecléctico de su programación, el ensemble ha abordado desde su primer concierto el 5 de octubre de 2020 bajo la dirección de José Luis Estellés obras maestras de los compositores Thomas Adès, Béla Bartók, Alban Berg, Friedrich Cerha, Ernest Chausson, Frédéric Chopin, Aaron Copland, Luigi Dallapiccola, Claude Debussy, Alvin Etler, George Gershwin, Sofia Gubaidulina, Paul Hindemith, Ramón Lazkano, Gustav Mahler, Darius Milhaud, Wolfgang A. Mozart, Conlon Nancarrow, David del Puerto, Maurice Ravel, Wolfgang Rihm, Miklós Rózsa, José María Sánchez Verdú, Dmitri Shostakovich, Franz Schreker, Erwin Schulhoff, Igor Stravinsky, Edgar Varese, Heitor Villa-lobos, Kurt Weill y Hans Zender, además de estrenos de los compositores Mikel Iturregi, Pedro González Álvarez y Leonel Aldino.

También destaca la participación solística de los profesores/as Marta Zabaleta, Miguel Ituarte y José Luis Estellés, así como la colaboración con la coreógrafa Myriam Pérez Cazabón en el concierto-celebración del Día Mundial de la Arquitectura en FICOB, el concierto en la MUN-Museo de la Universidad de Navarra y la participación en la edición de 2024 de Musika-Música Bilbao.

AITOR GARITANO, tenorra

2000. urtean jaio zen Bergaran (Gipuzkoa). Bertako Musika Eskolan eta Gasteizko Jesus Guridi Kontserbatorioan hasi zituen musika ikasketak. Kantu Interpretazioan gradua eta masterra ditu Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiaren (Musikene) eskutik. Bertan Maite Arruabarrena mezzosopranoaren eta Itziar Barredo eta Maciej Pikulski erreperitoristekin ikasi zuen.

Bere ibilbidean zehar, bakarlari gisa kontzertu ugari eskaini ditu, besteak beste, D. Buxtehuderen *Membra Jesu nostri*, C. Orffen *Carmina Burana*, J. Haydnen *Stabat Mater* eta *Nelsson Mass*, W. A. Mozarten *Requiem* eta *Koroatzearen Meza*, *Johannes Passion*, *Magnificat*, *Gabon oratorioa* eta J. S. Bachen hainbat kantata, G. Rossiniren *Petite Messe solennelle*, G. F. Händelen *Messiah* eta J. Brahmsen *Liebeslieder Waltzer*.

Halaber, operan hainbat ekoizpenetan egin du debuta: W. A. Mozarten *Bastian und Bastianne* (Bastián), N. Rimsky-Kórsakoven *Mozart und Salieri* (Mozart), H. Purcellen *Dido and Aeneas* (Sailor), R. Leoncavalloren *I Pagliacci* (Beppe), G. Pucciniren *Turandot* (Pong), W. A. Mozarten *Die Zauberflöte* (Tamino), P. Sorozabalen *La isla de las perlas* (Teahe), G. Bizeten *Carmen* (Remendado), L. Bersteinen *Trouble in Tahiti* (Trio), M. Garcíaen *I Tre Gobbi* (Conte Bellavita) eta I. Stravinskyren *Oedipus Rex* (Artzaina).

Donostiako Musika Hamabostaldian, OLBE Bilbao Operan, Música-Musika, Tenerifeko Operan, Teatro de la Mestranza, Opus Lirikan, Auditorio Nazionalean, Arriaga Antzokian eta Cuencako Musika Erlijiosoaren Astean aritu da lanean. Halaber, bakarlari gisa aritu da Euskadiko Orkestra Sinfonikoarekin, Bilboko Orkestra Sinfonikoarekin, Nafarroako Orkestra Sinfonikoarekin, Orkestra Cambra de Mallorca eta Conductus Ensemble taldearekin.

Nacido en Bergara en 2000, inició sus estudios musicales en la Escuela de Música de Bergara (Gipuzkoa) y en el Conservatorio Jesús Guridi de Vitoria-Gasteiz. Es graduado y tiene un máster en Interpretación de Canto por el Centro Superior de Música del País Vasco (Musikene), donde estudió bajo la tutela de la mezzosoprano Maite Arruabarrena y de los repertoristas Itziar Barredo y Maciej Pikulski.

A lo largo de su trayectoria, ha ofrecido numerosos conciertos como tenor solista, interpretando obras como *Membra Jesu nostri* de D. Buxtehude, *Carmina Burana* de C. Orff, *Stabat Mater* y *Nelsson Mass* de J. Haydn, *Requiem* y *Misa de la Coronación* de W. A. Mozart, *Johannes Passion*, *Magnificat*, *Oratorio de Navidad* y diversas cantatas de J. S. Bach, *Petite Messe solennelle* de G. Rossini, *Messiah* de G. F. Händel y *Liebeslieder Waltzer* de J. Brahms.

Asimismo, ha debutado en ópera y zarzuela en títulos como *Bastian und Bastianne* (Bastián) de W. A. Mozart, *Mozart und Salieri* (Mozart) de N. Rimsky-Kórsakov, *Dido and Aeneas* (Sailor) de H. Purcell, *I Pagliacci* (Beppe) de R. Leoncavallo, *Turandot* (Pong) de G. Puccini, *Die Zauberflöte* (Tamino) de W. A. Mozart, *La isla de las perlas* (Tehae) de P. Sorozabal, *Carmen* (Remendado) de G. Bizet, *Trouble in Tahiti* (Trio) de L. Bernstein, *I Tre Gobbi* (Conte Bellavita) de M. García y *Oedipus Rex* (Pastor) de I. Stravinsky, entre otras.

Ha actuado como tenor solista en escenarios y ciclos musicales, como la Quincena Musical de San Sebastián, ABAO Bilbao Opera, Música-Musika, Opus Lirica, Ópera de Tenerife, Teatro de la Maestranza de Sevilla, Auditorio Nacional, Teatro Arriaga y la Semana de Música Religiosa de Cuenca. Además, ha colaborado como solista con la Orquesta Sinfónica de Euskadi, la Orquesta Sinfónica de Bilbao, la Orquesta Sinfónica de Navarra, la Orquesta Cambra de Mallorca y Conductus Ensemble.



NEWSLETTER

Gure boletinera harpidetu
nobedadeak posta
elektronikoan jasotzeko

Suscríbete a nuestro boletín
para recibir en tu email
nuestras novedades.

FOLLOW US

